

Kontzertua, eskubide nazionala

Euskaldunon Egunkaria, 1997-06-01: 3.

Bada oinarrizko dena, eta bestea, ez dena. Oinarrizkoa da herri baten hizkuntza, eta ez da bere paisaia. Euskarak jatorriz markatuak dira sortzetik Benabarra, Laburdi eta Zuberoa, gero ingelesen eta frantsesen mendeko autonomian bizi, eta Frantziako Iraultza odoltsuak 1789an irentsi zituenak, eta hurrengo urtean inbentatu berri zituzten Bajos Pirineos eta Pirineos Atlánticos Departamentuetan trebukaldian sartuak izan zirenak, ez demokratikoki, bistan da!; Nafarroa erresuma osoa zen, Espainiaren eta Frantziaren pareko, gutxien esateko, eta kito!, hor egon ginen noizpait denok eta tranpa santutako gerran harrapatuta bentzutua izan zen; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, bestalde, Espainiaren babes politikoan bizi izan ziren bere buruen jabe eta kontu handiz Gaztelako erregeekin eta gero Espainiakoenekin banan bana batasun pertsonalen bitartez, sasoi historikoak ziren halakoak!, azkenean karlistak joan den gizaldian, 1839an, lehen gerra galdu ondoren, eta gezurretan, Espainiako batasun konstituzionala aldebakarreko indarkeriaz ezarri zitzairenean. Eta oraindik onartu ez duguna, mundu osoa lekuko, eta ezta onartuko ere.